

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Sinforoso Madinabeitia Oñate
Oñati, Gipuzkoa
(1918-2013)

Aurkibidea



Biografia



Urrusulako Errotan jaio zen. Auzoko eta Uribarriko eskoletan ibili zen umetan. Geroago maristen gau-eskolan ere ibili zen, Zelaakoa baserrian morroi zegoela. Beste urtebete Gasteizko Korazonistetan egin zuen; hemen jolas-orduetan eskola garbitzen zuen, ostatua eta beste gastuak ordaintzeko. Soldadutzan eta gerran zazpi urte eman zituen. Gerran transmisiotan jardun zuen, morse kodigoa ikasi eta gero. Pinuak botatzen egin zuen lan Zelaakoan egon zenean. Gerratik itzuli eta gero, 1945. urtean Zerrajeraren Olateko zentralean hasi zen lanean eta han jarraitu zuen erretiratu arte. Erostarbe baserrira ezkondu zen, bertako Inazia Erostarberekin. 1960ko neguko euriteengatik baserria mugitu egin zen eta etxea utzi egin behar izan zuten betirako. Orduan, Zañartuko eskolako hutsik zegoen moja-etxera joan ziren bizitzera, eta geroago kaleko etxe batera. Bost seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ONA-103

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-05-25
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Leturia, Ane

ONA-104

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-05-25
- **Iraupena:** 18 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Hiru Sinforoso

- **Erref:** ONA-103/003
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:02:58. **Bukatu:** 00:04:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita pontekoak Sinforoso zuen izena. Araotzen bazen beste Sinforoso bat, Madinakoa. Tiburtxi izeba inguruan bizi zen. Frontean hil zen, Ebron, Madinakoa.

2. Erostarbe baserria

- **Erref:** ONA-103/006
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:08:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Erostarbe baserrian 500 urtean gorde da Erostarbe abizena. Emaztearen baserria, hara ezkondu zen. Urrexolan lurra ikara egin zuen, eta baserria mugitu egin zen.

3. Bainuetxean jaioa

- **Erref:** ONA-103/008
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:08:49. **Bukatu:** 00:09:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bainuetxean jaio zen, eta martxan ezagutu zuen. Errota, berriz, ez. "Joxe errota" nola hil zen, errotaria. Gero, zerrajera egon zen. Jaturabeko errota ere desagertu zen.

4. Urrexolako eskola

- **Erref:** ONA-103/010
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:10:17. **Bukatu:** 00:14:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Don Jose Migel apaiz araoztarra eta Pedro Lizarralde: kanpaia jotzen zuen hiletetan. Harekin ibili zen eskolan, elizpetik igota, kanposantu ondoan, Urrexolan. Miruerrekan, Don Pedro Zurutuza maisuak hurritz-makilak eskatu zizkion; eraman eta bera egurtu zuen haiekin. Miruerrekako eskolako maisua. Aitzurrarekin jota oiloa nola hil zuen.

5. Uribarriko eskola

- **Erref:** ONA-103/011
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:14:01. **Bukatu:** 00:17:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Uribarriko maisuarekin, Jausororekin, ere ibili zen eskolan. Bazkaria zapi batean eramaten zuen; txorizo muturra galdu zuen, behin. Oinez joaten zen errotatik, Benanziorekin. Madariak lapurtzen zituzten, Txopekua sagardotegian. Ezpeletanean egon zen morroi gero, urte bian.

6. Gasteizen tripa-truke

- **Erref:** ONA-103/012
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:17:42. **Bukatu:** 00:19:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Maristetan gau eskolan ibili zen, eta Gasteizen ere egon zen erdara ikasten, Corazonistekin. Jolastorduetan eskola garbitzen zuen, ikasketak ordaintzeko. Tripa-truke.

7. Soldadu gerra garaian

- **Erref:** ONA-103/014
- **Iraupena:** 0:04:36. **Hasi:** 00:19:27. **Bukatu:** 00:24:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

"Transmisiones" sailean egon zen soldadu, morse alfabetoa ikasita. Palentziako herri batean egon zen. Sevillan ere bai. Sarjentuaren deskuidua: eskuzko bonba intxaur adarrean trabatu, eta eztanda egin zuen. Belarria mindu zitzaion, eta ebakuntza egin zioten, Valladoliden. 41eko kalenturarekin. Hilzorian egon zen. Gerra garaia zen.

8. Morse alfabetoa ikasi zuen

- **Erref:** ONA-103/015
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:24:03. **Bukatu:** 00:27:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Teruelen soldadu asko hil ziren. Boluntarioak eskatu zituzten "Transmisiones" sailerako. Morse alfabetoa ikasi zuen. Gerra denboran, fusila erabiltzen ikasi zuen, baina ez zuen erabili. Kodeak. Somosierran egon zen. Istripua nola gertatu zen. Paretaren kontra harrapatu zuen bonbak. Nicasio Barreira nola hil zen, ura edanda.

9. Irratiak konpontzen

- **Erref:** ONA-103/016
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:27:43. **Bukatu:** 00:32:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Hilabetez ibili zen "Transmisiones"en. Burua ona izan du. Morse kodea nolakoa zen. Sarjentuaren pare ibiltzen zen, ondo ikasi zuen. Kataluniako frontean egon zen, irratiak eta telefonoak konpontzen. Sei posizio zeuden. Mandoak telefono kablea nola hautsi zuen. Hildakoen usaina.

10. Bi urte gerran eta lau soldadu

- **Erref:** ONA-103/019
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:33:30. **Bukatu:** 00:35:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Kordoban eta Extremaduran ere ibili zen. Bi urte egin zituen gerran, eta gero ia lau kuarteletan. Gosea pasatu zuten. Etxetik dirua bidaltzen zieten. Ogia gordetzen ibiltzen ziren.

11. Bainuetxea nola galdu zen

- **Erref:** ONA-103/020
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:35:16. **Bukatu:** 00:38:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Errotan bizi izan da. Auto-istripuan hil ziren koinata eta bi seme-alaba, 1970ean. Bainuak prestatzen eta sukaldean ibiltzen ziren amona, eta gero ama. Istripuarekin bukatu zen bainuetxea.</p>

12. Ganadua

- **Erref:** ONA-103/021
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:38:14. **Bukatu:** 00:39:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ganadua: lau behi pirenaiko zituzten. Ardiak ere bai. Iturrean ibiltzen zenean ez zen eskolara joaten. Eskolan erdaraz ikasten zuten, baina ez zuten ulertzen. Dotrina.

13. 'Pernando amezketarra'ren bertsoa I

- **Erref:** ONA-103/024
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:41:40. **Bukatu:** 00:42:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Pernando amezketarraren bertsoak, txartel bila joan zenean. Araotzen morroi egon zenean irakurri zuen.</p>

Transkripzioa

- "Esango al didazu"...
- "Esango al didazu instante batian, nik liburutik txartela atara bitartian, nola sinisten dezun zuk zere artian, hiru persona daudela jangoiko batian." Eta Fernando bersolaixa izan, eta Fernandok erantzun otsala, nik irakurritta xakuat Araotzen kriaueon nitzuan. Hamalau-hamabost bat urte ixa eukiko nittuan. Nere prima bat zuan e... Mantzena.

14. 'Pernando amezkatarra'ren bertsoa II

- **Erref:** ONA-103/026
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:42:49. **Bukatu:** 00:43:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Pernando amezkatarraren erantzuna, erretoreari. Bertsoa.</p>

Transkripzioa

- Ta ze erantzun eben Fernandok?
- Fernandok erantzun txan, erantzun in txan, liburua irakurritta [ñakuan], han xakuain liburu zahar bat Fernando Amezkettarraren txistiak eta zeak, eta... "Esango diot nola siñisten dedan arrazoiarekin, erretore jaunak nahi badu jakin. Usaia, koloria, saborearekin, horra hor hiru gauzatxo sagartxo batekin". Sagarrakin konparau xuan trinidadetzea. Bersuoi konpondu xuan.

15. Zelaakoan morroi

- **Erref:** ONA-103/027
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:43:40. **Bukatu:** 00:44:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobeitxamendua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Zelaakoan egon zen morroi, bitan, eta Araotzen ere bai. Pinuak botatzen ibiltzen zen, trontzarekin, Zelaakoan.

16. Argindarra jarri zutenean

- **Erref:** ONA-103/028
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:44:54. **Bukatu:** 00:47:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Kinkearekin ibiltzen ziren etxean, argindarrik ez zegoelako. Mutikoa zela egin zen Urrexolako transformadorea. Jendea ikustera joan zen Uribarritik, kablean zehar argia ikusi egingo zelakoan.</p>

Transkripzioa

<p>- Eta etxian, zu mutikua ziñanian, etxian arginddarrik baeguen, ordurako ia-edo!</p>

<p>- Ba, esango dostat, kinkiakin, argixarixakin eta kinkia…</p>

<p>- Orainddiok zentrala ifiñi barik eguen, e?</p>

<p>- Ifiñi barik eguen, baiña nire mutiko denporan egingo zuan Urrusulako transformadorea. Nik zortzi bat urte-edo igual euko nitxuan, eta Ubaotik bota bihar euela. Ubaotik xaguan linea bat Olatera, eta illunkaran seietan-edo ordua ifiñitta, eta jentia ikustera fan ei zuan Migel tabernari, Migel lgartua ha aittajuna, semia be ni baiño zaharragua zuan, eta Gorordoko zera, argixa gorrixa etorriko zalakuan ikustera fanda egon zirala, Uribarrittik pillia.</p>

<p>- Ubaotik, Ubaotik argixa etorriko zala?</p>

<p>- Ubaotik.</p>

<p>- Baiña kablian ikusiko zala pentsaitten ebein?</p>

<p>- Kablian ikusi egingo ete zan argixori etorten, eta harek argi egingo ete eben-edo, zerbait esaten xuan harek bai!</p>

<p>- Ta horixe, geratuko ziran kabliari begira, ezta?</p>

<p>- Kabliari begira denporalerako, eta seietan, honezkero etorri bihar xuan, ba, etorri bihar xuan! Eta aspertu ziranian, fan ei zittuan etxera, eta etxian argixa dago!</p>

<p>- Baiña kablian ikusi ez!</p>

<p>- Kablian ikusi ez! . </p>

<p>- Pasadizuan ikusi ez!</p>

<p>- Kablia gorrittu barik</p>

<p>- Eta berriz, mutikua ziñanian ekarri euen, ifiñi zebein etxian arginddarrori.</p>

<p>- Bai, ni mutikotxua nintzala akordaitten nauk zerbait, zerbait lanpariakin olixuakin edo traputxon bat-edo, zera, ifiñi metxia,</p>

<p>- Inkea</p>

<p>- Hori, hori, bai.</p>

<p>- Ta karburuakin edo?</p>

<p>- Kinkiakin be bai, karburuakin gerotxuau igual. Bai!</p>

17. Etxean urik ez

- **Erref:** ONA-103/029
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:47:18. **Bukatu:** 00:48:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Bainuetako ura ez zen edateko ona, baina berak edaten zuen. Errekara joaten ziren arropa garbitzera.

18. Lana, Olateko zerrajeran

- **Erref:** ONA-103/030
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:48:02. **Bukatu:** 00:50:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Lanean zerrajeran hasi zen, 1945ean, Olaten bertan. Konponketak, hodiak margotu... Elurrak linea apurtzen zuenean, poste puntetan igota. Esku hotzekoa zen bera, eta eskuak ur berotan sartzen zituen. Ugazaba esku berokoa zen.

Transkripzioa

<p>- Eta lanian noiz edo nun hasi ziñan?</p>
<p>- Lanian hasi nintzuan ni…</p>
<p>- Esan dozu lehenengo ibilli ziñala Zelaakuakin, e, piñu botaten…</p>
<p>- Bai!</p>
<p>- Hasi nintzuan Zerrajeran 1945uan sartu nintzuan ni.</p>
<p>- Nun, Mondraguen? </p>
<p>- Olaten!</p>
<p>- Olaten bertan?</p>
<p>- Olaten bertan. Bai!</p>
<p>- Zer urte esan dozu? Ze urte, cuarenta y cinco?</p>
<p>- Mil novecientos cuarenta y …, bai, bai, nik 26 bat urte?</p>
<p>- Berrogeita laua edo berrogeita bosta</p>
<p>- Berrogeita bost, 55, o 45. Berrogeita bost, bai. Hori dok!</p>
<p>- Eta zer lan klase egitten zebe han?</p>
<p>- Reparaziñuan, tubo pintaitten, alanbraak ifintten, eta eskillara bat hartu, orain lanroberrian ibiltten xui bertaraiño, horreik obreruok, baiña edurrak galantak, eta linea apurtu edurrak, goittik behera kargiakin, eta botaten, sarri ibiltten giñan poste puntetan eskuak zertu, gogortu, izoztu eta dios! Kapataza giñaukan esku berokua, odol berua, eta ni, andria eta ni, diferentia. Nire andria zana, orain hiru hillabete hil zuan, eta harek e, arbixa etaraten bai, eta nik ur berua kaldakara bat hartu edo pozalkara bat eta faten nintzuan arbi etaratera ta, arbi bi etara orduko eskuak hotzittuta eta andriak banastakaratxo bat arbi igual etaraten xuan edo banastakada bat eskuak uretan sartu barik. Eta hori Antonio be zuan esku berokua, Larrea kapataza, eta esan dotena edo esatera noiana, e, harek eskuetatik etxuan sufritten.</p>

19. Saratxoko tunela

- **Erref:** ONA-103/031
- **Iraupena:** 0:04:36. **Hasi:** 00:50:44. **Bukatu:** 00:55:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Olatera ura Aitzgainetik eta Saratxotik zetorren. Ur azpitik zetorren ura; tunela ez zegoen erabat ondo eginda. Bederatzi erreal irabazten zituen egunean, pistoletekin zebilen mutilak. Lope de Agirre, Agerrekua. Deguriako ura. Labaderoa.</p>

Transkripzioa

<p>- Eta Olatera zenbat lekutatik etorren ura turbinak-eta mobitteko?
- Olatera…itxoin! Bat Aitzgain, depositotik, beste bat Saratxo. Eta Saratxoko tunelak xakok, esaten dauenez, zortzi kilometro haitz bizixan azpittik, eta Lafitte ei zuan ingles, e, frantses bat, injinerua, ideau ebena alde bittatik atakaittia
- Zuluori?
- Zuluori, kobiori, uren pasuori, eta zuzen bai, baiña hau hamar zentimetro altuago.
- Alde bata?
- Alde bata. Entzuten ei txuin deskargaak, beste zerak, entzuten dittuk, entzuten dittuk! Bai, zerbait entzuten txuat! Joño, eta ei xaguan mutil bat..., pistoletia joten zuan porra batekin eta albo bittara joten ei xuan. Konparaziño baterako, tunela igual uno veinte edo, eta bi pistoletia, buru bat hemen eta beste bat hemen, eta harunzkotan hau eta honunzkotan hau, harunzkotan hau eta honunzkotan hau. Bederatzi erriel, 2,25 irabazten ei xuan harek egunian, espezialistia, artistia zalako, eta bestiak pezeta bi.
- Baiña ze, pistoletia jote hori zertarako ibilli zan?
- Hori tirua egitteko, tirua. Sartzen zuan. Pistoletia egitten zuan, kustiñua hola ifiñi, behetik gora antzian eta…e..
- Orduan tunelok etziran parera etorri orduan…
- Pare-parian, pare-parian.
- Hamar zentimetro
- Hamar zentimetro harunzkua bakarrik, eta bueno milagrua! Ta milagrua, bai harek beste jakin ezker!
- Eta tunelori nundik nora dator?
- Hori Araozko Lope de Agirre, Araozko bat izan zuan…
- Agerrekua, bai. Araoztarra bazan, Agerrekua!
- Agerre, bai, eta Lope de Agirre hori, Agerrekua, eta Saratxotik, Saratxon urteten xok Degurixako urak haitzetik, holako boka bat, ur asko datorrenian gehixago, inddar gehixagokin faten dok, eta gutxi daguenian be, erreka fijua dok, eta hori, ur hori pasaitteko sifoian, lehenengo sifoian, ee. Sifoia dok, porenjenplo, hamendik altura urak topaitten eta, e... handik, han labadero bat xak, kanalian xatok ura lehenengo igual ehun metro gutxi gorabehera, eta gero sartzen dok hor haitz azpira, eta tunel hortan, eta preguntau dok zenbat ur Olatera: Aitzgaiñekua, Saratxokua,…
- Eta horrek tunelorrak Olaten nun urteten dau? Nik enekixen tunelen istorixia …
- Erostarben! Nire baserrixa zan lurak atrabesau (zi)txuan horrek!
- Joño, zuek mobiuko zebein igual lurak tunela egitten!
- Bueno, leikiena hori be. Ez! Honutzago zuan, e, beste zeori, lurrikariori!</p>

20. Olatera doazen urak

- **Erref:** ONA-103/033
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:56:14. **Bukatu:** 00:58:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Lanbideak » Negozioak, denda

Laburpena:

<p>Jaturabeko ura ere joaten zen Olatera. Zapatakoa ere bai. Makinak. Urak non elkartzen diren. Arantzazura sarri joaten ziren, makinak garbitzera.</p>

Transkripzioa

- Bueno eta lehengo urokin jarraituaz, Aitzgaiñeko zera, Saratxokua eta Jaturabekua be bai

<p>- Bai, ni galdu egitten nauk. Iaturabekua…</p>

<p>- Eta qero Zapatatik be ez dator?</p>

<p>- Zapatatik, bai! Zapatakuak xakok makiña bat haundixa, potentia, eta bestiak, Aitzgaiñekuak xakok bi, Saratxokuak xakok bi, eta Olate, Urrusula Beitti deposittotik, hor Jaturabekuak xakok beste bi, txikiñaguak, gutxiau produzitten dauenak.</p>

<p>- Eta, eta, Zapatatik datorren ura gero juntaitten da laturabekuakin edo aparte doiaz? </p>

<p>-Bai tta ez! Jaturabetik, e, datorren ura pasaitten dok, Jaturabetik, presatik datorrena, Jaturabeko makiñetxetik azpittik eta han makiñia dabillenan, ur gehixago bixendako bi makiña. Bat, e, tuberixa bat xak Zapatatik, txikitxua dok, Jaturabera, eta batendako baiño gehixago ura badator…</p>

- A, bestetik?

<p>- Makiña bixak ibiltten dittuk, Olatekua be bai, haundixa, potentiori, eta Jaturabekuak gutxiau emuten xok. Jaturabeko makiñia txikiñagua dok.</p>

<p>- Horreik dira hirurok Aitzgain, Saratxo, Jaturabe eta…</p>

<p>- Zapata.</p>

<p>- Zapata.</p>

<p>- Bai, jauna! Horreitzek dittuk. Eta Arantzazun sarri faten gintzuan gu, Arantzazura udazkenian, hostro, orbela daguen denporan eta … parrilla garbittu egin bihar zuan eta makiñia ura emun bihar eta parrillia egitten zuan zikinddu. Gaur automatiko-edo ifiñitta xazak eta hola, e…; parrillak garbiketari sarri ibiltten gintzuan Arantzazun esan dotena, eta Olatetik faten gintzuan oiñez hara; gaba pasau…</p>

<p>- Arantzazuko ura Zapatarara, ezta?</p>

<p>- Zapata, Zapatara, hori, hori! Bai, jauna!</p>

21. Sorgin-erreka

- **Erref:** ONA-103/035
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:59:40. **Bukatu:** 01:01:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Sorgin-errekaren istorioa. Arantzazuko batek ez zuen sorginetan sinesten, eta sorgina agertu ei zitzaion. Txapela galdu zuen. Arenduikoa ei zen mutila.</p>

Transkripzioa

- Batek Arantzazun ez ei xuan sorgiñetan sinisketan eta Sorgin-erreak hortik datorrela. Behin Sorgin-errekan agertu xakuan hiru milla ta... "ez gaizela, baiña bagaittuk, hiru milla eta bostehun hamen gaittuk!" Eta sorgiñak urten, eta raaa! Ta hurrengo goizian txapela etxian galdu eta, Arenduikua ei zuan mutil hori.
- Hori entzun barik nekuan!
- Eta kustiñua, "bagaizela, baiña ez gaizela, baiña bagaittuk, hiru milla eta bostehun hamen gaittuk!" Eta hori entzun ebenian e, mekaguen! Larrittu dok txapela eskuetan eta txapela galduta allegau ei zuan. Eta hurrengo goizian:
- Sorgiñak ikusi ta gero!
- "Nora hoia hain goiz?" ta "Txapela galdu ñuan, Sorgin-errekan urten nostain sorgin pilla batek..."
- Arenduikua izena eztakozu goguan, zein zan, zein...?
- Ez, ez, ez, ez, lehenagoko kontua dok hori, oin milla urte edo berrehun urteko kontua dok hori. Gehixago.
- Ni Arantzazun hazittakua naiz eta hori kontuori entzun barik nekuan.
- Kooño! "Ez gaizela, baiña bagaittuk, hiru milla eta bostehun hamen gaittuk!" Sorgiñak e, zera. Hurrengo goizian fan ei zuan sorgiñok egon ziran lekura ta, han ez ei xaguan, latatxo bat, ta olixo apurren bat zekin, trapu zahartxo bat ta, kitto, sorgiñak falta!
- Eta txapel hori topau eben, edo?
- Txapela topau ei xuan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com